

«Gure sagardo berria», goxoa eta bizia

Olatz Arrieta Barandiaran kazetari astigartarrak izan zuen atzo, txotx denboraldiko aurreneko sagardoa probatzeko «ohorea», berak onartu bezala. Astigartarrek Murgia Jauregian egin zuten txotx.

«EMOZIO» haundiko eguna izan zen atzokoa, Olatz Arrieta Barandiaran kazetari astigartarrantzat. Bruselako berrie-maile postua egun pare batez utzi, eta sagardo berriaren enbaxadore paperean sartu zen.

Astigarragako Gartziategi sagardotegian dastatu zuen «gure sagardo berria», Sagardotxean sagarrondoa landatu ondoren. «Urduri» zegoela onartu arren, «emozio askoko» eguna izan zela azpimarratu zuen, eta «bertan egotea ohorea» izan zela. Baita sagardoa «oso goxoa» dagoela baieztatu ere.

Askok jarraitu zuten sagardotegian, festa giroan, eta beste askok Murgia Jauregian egin zen Txotx Berri Herrikoian dastatu zuten urteko aurreneko sagardoa. ||

*Informazio gehiago larunbateko gehigarrian.



Olatz Arrieta kazetariak dastatu zuen atzo Astigarragan, «gure sagardo berria!».